



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 25ean

76. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, 3.937.887,01 euroko kreditu berezia ematen duena Microsoft lizentziak jabetzan eskuratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan ea zer aldaketa egin behar diren NA-160 errepidean, haren ahalmena handitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena ordain dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta jarduteko osasun arloko protokoloa aktiba dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ekintza egin ditzan gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espeditentea bertan behera utzita. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziatio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak zehaztera, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Berriaingoa ikastetxe publikoaren eraikinaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktima nafarren memoria ohoratze aldera 2016an egingen dituen ekitaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 3.937.887,01 euroko kreditu berezia ematen duena Microsoft lizentziak jabetzan eskuratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, 3.937.887,01 euroko kreditu berezia ematen duena Microsoft lizentziak jabetzan eskuratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea,
3.937.887,01 euroko kreditu berezia
ematen duena Microsoft lizentziak
jabetzan eskuratzeko Nafarroako Foru
Komunitateko Administrazioarako

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen helburua da Microsoft lizentziak jabetzan eskuratzeko finantzaketa ematea, beharrezkoak baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionamendu zuzenerako.

Orain arte, produktu horien lizentzia emateko, erabilera-lizentzietarako kontratu bat egin da esleipen zuzenaren bidez Irlandako Microsoftekin, hori baita lizentzia horien jabe bakarra. Hornidurarako kontratu bat da, "EAS" motakoa. Kontratu hori bukatu baino lehen, Microsoftek proposatu zuen auditoretza bat egitea, bere barne-politika zela eta, kontratua berritu aurretik. Auditoretzaren ondorioz, EAS kontratuaren bidez lizentzia ematearen ordezkotako aukera desberdinak aztertu dira, kontuan izanik Microsoften eskaintzak, urte hauetan Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak irabazi duen esperientzia eta Administrazioaren benetako beha-

rak. Gisa horretan, ondorioztatu da epe ertainean eta luzean onena dela lizentziak eskuratzeko, ekonomia, egokitasun eta estrategia arloetako zioengatik.

Kreditu bereziaren bitartezko finantzaketari heldu behar zaio, gastu hori ekitaldi honetan egin behar baita eta aurrekontuan sartutako kredituek helburu baitzuten EAS kontratuaren gastua estaltzea, ez lizentziak eskuratzeko. Izan ere, auditoretzaren emaitzak 2016ko Aurrekontuei buruzko Legea tramitatu ondoren eman ziren jakitera.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta aurrekontuan krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat emateko. Halaber adierazten duenez, foru lege proiektu horretan zehaztu behar da zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatzeko dutenak; edozein gastu programarako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketa edo foru lege honetako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarreraren handiagoen karguak, diru-sarreraren horiek errealak edo aurreikusitak direla ere.

Esandako guztiagatik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat onestea Microsoften lizentziak jabetzan eskuratzeko finantzaketa beharrei heltzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionamendu zuzenerako.

1. artikulua. 3.937.887,01 euroko kreditu berezia ematea onesten da, Microsoft lizentziak jabetzan eskuratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako. Aipatu kredituaren zenbatekoa 2016ko gastu-aurrekontuko 070005-05500-6094-467903 kontu-sailari aplikatuko zaio, "Microsoften lizentziak" izenekoari.

2. artikulua. Kreditu berezi hori finantzatuko da "Epai-betearazpenagatiko itzulketa" izeneko diru-sarreraren 070005-05500-4400-000000 kontu-sailean aurreikusitako diru-sarrera handiagoeekin (2.308.866,59 euro) eta ondotik zehazten diren

gastu-aurrekontuko kontu-sailetan dagoen kreditu erabilgarriarekin ere, zenbateko hauekin:

- 070005-05530-2279-467902
"Nafarroan telebista
zabaltzeko zerbitzua"984.186 €.
- 070005-05500-2061-467900
Erabilera orokorreko eta korporatiboko
software lizentziak (antibirusa,
suebakiak eta beste batzuk)644.834,42 €.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar-munean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan ea zer aldaketa egin behar diren NA-160 errepedean, haren ahalmena handitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan ea zer aldaketa egin behar diren NA-160 errepedean, haren ahalmena handitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea zer aldaketa egin behar diren NA-160 errepedean, haren ahalmena handitzeko, eta aintzat har dezan errepede-bikoizketa, aurten konponbide egoki bat ezarriz, 2018tik 2019ra bitartean gauzatuko dena".

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena ordain dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena ordain dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2012an kendutako aparteko ordainsaritik falta dena ordain dezan aurtengo uztailaren 1a baino lehenago, Nafarroako enplegatu publikoak beste administrazio publiko batzuetakoak baino baldintza okerragoetan ez jartzeko".

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Jendaurrean adierazten du 1936ko kolpe militarrek eta ondorengo diktadura frankistak eragindako biktima guztiekiko bere elkartasuna.

2. Egungo Espainiako Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren jarrera gerorazale eta oztopa-

tzailea salatzen du; izan ere, luzamendutan eta oztopoak jartzen aritu dira frankismoan gertatutako zenbait krimenen ustezko arduradunei ikerketa-deklarazioak hartu eta zenbait diligenzia egite aldera orain arte egindako errekerimenduei erantzuterakoan.

3. Espainiako Estatuko Gobernuari –gaur egungoari eta etorkizunekoari– exijitzen dio giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia errespetatu eta ardura osoz bete dezan, bai eta zorrotz bete ditzan ere Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea bere errelatore berezien bidez urterik urte egiten ari den gomendio guztiak”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta jarduteko osasun arloko protokoloa aktiba dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta jarduteko osasun arloko protokoloa aktiba dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta jarduteko osasun arloko protokoloa aktiba dezan.

2. Gaixotasun horien arloko ikerkuntza, sensibilizazioa eta prestakuntza berariazkoa areagotu dezan osasun arloko langileen nahiz elkarteko langileen artean.

3. Gaixotasun horiek dituzten langileentzako zerbitzu, aholku eta laguntza lerroak taxutu ditzan.

4. Gaixotasun kroniko horiek gaixotasun ezgaitzaile gisa har ditzan.

5. Gaixotasun horiek minusbaliotasunen barruan –ezgaitasunak– ebalua ditzan, eta lanpostuak gaixo bakoitzaren beharrezanetara egokitu ditzan.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ekintza egin ditzan gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ekintza egin ditzan gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gaur egungo kalitate-eskakizunen arabera alda dezan 209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.

2. 2010-2013 aldirako Nafarroako Gizarte Zerbitzuen I. Kalitate Planaren ebaluazioa 2016a amaitu baino lehen egin dezan.

3. Gizarte zerbitzuen egoerari buruzko diagnostikoa egin dezan eta bigarren Kalitate Plana 2018a baino lehenago presta dezan. Plan horrek honako eduki hauek bilduko ditu, gutxienez:

– Zerbitzu-eredu berritzaileen ikerketa eta ezarpena.

– Eskubide Sozialetako Departamentuarenak diren zerbitzuak hitzartzeko orduan gutxieneko baldintza teknikoak eta lan arlokoak ezartzea.

– Langileentzako prestakuntza plana

– Lana bateragarri egiteko neurriak

– Erabiltzaileen eta haien familien parte-hartze handiagoa

– Zaintzaile informalak babesteko eta trebatzeko neurriak

4. Gizarte Zerbitzuen Zorroan aipatutako zerbitzu ezberdinetarako protokoloak, erregistroak eta programak zehatz ditzan, lehentasuna emanda egoitza-izaerako zerbitzu bermatuei, nahitaez bete beharrekoak zerbitzu publikoentzat eta postu itunduentzat.

5. "El Vergel" zahar-etxetik zentro-kudeaketako proiektu bat presta dadin, beste zahar-etxe batzuentzat kudeaketa-eredu izanzen dena. Kudeaketa eredu hori kalitatean oinarritu behar da, pertsona bakoitzaren beharrianak eta nahiak hartu behar ditu aintzat, eta kontuan hartu behar du eta behar diren bitartekoak jarri baldintza duinak bermatzeko, lanak eragin negatiborik izan ez dezan langileen osasunean.

6. Adimen-desgaitasuna duten helduak artatzen dituen San José egoitzak zentro-kudeaketako proiektu bat presta dezan, Schallock-en kalitate ereduan oinarritzen dena."

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espeditentea bertan behera utzita.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gauza bera egin dezaten, EITBren lau kateren emisioak direla-eta Telekomunikazioetako Estatu Idazkaritzak ezarritako zigor-espeditentea bertan behera utzita.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Industria, Turismo eta Energia Ministerioaren jardunbidea EITBri ezarritako zigor-espeditentea dela-eta, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio aipatutako zigor-espeditentea bertan behera utz dezala, kasuko ekipoak eta instalazioak prezintatzeko urratsak egiteari uko egin diezaiola eta egin beharreko urratsak egin ditzala EITBk Nafarroako

Foru Komunitatearen lurraldean multiplex bidez emititu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: eman ditzala, ahalik eta eperik laburrenean, marko legal egoki eta egonkor bat ezartzeko urratsak, EITBren kanalak legez eta normaltasunez jaso ahal izateko bidea emanen dutenak, eta beharrezkoak diren bitarteko teknikoak jar ditzala kaptazioa behar bezalako kalitatearekin eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan gauzatu dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: erabaki honen bigarren puntuan aipatutako marko legal egokia eta egonkorra nahiz beharrezko bitarteko teknikoak ezartzen diren bitartean, ahalik eta eperik laburrenean eta berandu gabe EITBren seinalea jaso ahal izan dadin behar diren urratsak eman ditzan, une honetan eskura dauden baliabide teknikoen bitartez.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak zehaztera, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat abian jarri eta haren epeak zehaztera, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat urgentziaz abian jarri eta haren epeak zehaztera, Nafarroan Hezkuntza Publikoaren Sistemaren kalitatea hobetzeko akordio berri bat lortze aldera, arrakastaz heldu ahal izateko gaur egun gizarteak hezkuntzari planteatzen dizkion erronkei eta, halaber, irakaskuntza publikoko ikastetxeek eta irakasleek galdu dituzten baldintzak berreskuratzeari?”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2016ko maiatzaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Beriaingo ikastetxe publikoaren eraikinaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan fidagarri bat presta dezan Beriaingo

ikastetxe publikoaren eraikinaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du instalazioen egoera duin bat asumi eta berma dezan, Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanaz.

3. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu egitea erabakitzen den jarduketan egutegia ezar dezan.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruz (9-16/PES-00127). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako lehendakariordearen erantzuna:

Eskubide Sozietako kontseilariaren martxoaren 10eko 137/2016 Foru Aginduaren bidez, gizarteratzerako eskubidea eta errenta bermatua arautzeko foru legearen aurreproiektuaren prestaketa lana hasi zen.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 51. artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak legegintzarako ekimena izanen duela, Nafarroako

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 19. artikuluan aurreikusia, eta honela garatzen duela: foru lege proiektuak eginez, onetsiz eta, gero, Nafarroako Parlamentura igorritik. Ondoren zehazten du zein dokumentu, txosten eta kontsulta gehitu behar zaizkion espedienteari.

Apirilean zehar, jendearen parte hartzerako zabaldu da Gizarteratzerako eskubidea eta errenta bermatua arautzen dituen foru legearen aurreproiektua.

Horretarako, Nafarroako Gobernuaren webgunean (Gobernu Irekia) testua eskura daiteke, bai eta hartara ekarpenak edo iradokizunak egiteko modua ere.

Behin epe hori amaituta eta eragin ekonomikoa izan dezaketean iradokizun eta ekarpenak berrikusita, modua egonen da Gizarteratzerako eskubidea eta errenta bermatua arautzen dituen foru lege proiektuaren zenbatespen ekonomikoa edukitzeko, eta, gure aldetik, modua edukiko dugu hark ekarriko duen kostuaren zenbatespena egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

Iruñean, 24 de maiatza de 2016

Eskubide Sozietako lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren organigramari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.


Iruñean, 2016ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza


ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2016ko martxoaren 15eko 1148 sarrera-zenbakia dauka (9-16/PES-00128), eta haren bidez jakin nahi du zein den Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren egungo organigrama eta lehengo Gobernuarekin zegoena. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna

NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOAREN ORGANIGRAMA. 2015eko IRAILA



NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOAREN GAUR EGUNGO ORGANIGRAMA



* Petsona berak betetzen ditu koordinatzailearen eta Kontrolerako Departamentuko buruaren eginkizunak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ekonomia sozial eta solidarioa

Lanpostuak sortzeko diru-laguntzak577.543,00 €
Enpresa-ondorengotzarako laguntzak ekonomia sozialeko enpresetan159.128,00 €

Enplegu autonomoa

Auto-enplegurako diru-laguntzak, inbertsioetarako1.000.000,00
Auto-enplegurako diru-laguntzak, kredituei hobariak emateko.65.523,00
Gizarte segurantzaren kuoten ordainketa, langabeziaren kapitalizaziorako400.000,00

Enpresen enplegu inklusiboa/irabazi asmorik gabeko entitateak

Enpleguko zentro bereziak. CES8.800.000,00 €
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresa arruntean.234.013,00 €
Administrazio publikoen eta irabazi asmorik gabeko entitateen kontratazioak100.000,00 €
Enplegurako zailtasun handiagoa duten gizataldeen laneratzeko kontratazioa. CIS.....1.875.000,00 €

Halaber, aditzera eman behar dizut enpleguko politika aktiboen estrategiaren lanketaren barruan enpleguaren ardatzean komenigarri diren neurriak jasoko direla, enpresen kontratazioa bultzatzeko.

Bestalde, kalitatezko enplegua sortzea da Gobernuaren helburua, eta hori lortzeko ahaleginak jarduketa-lerro estrategikoetan zentratuko dira. Horretarako, teknologoen kontrataziorako 1.625.000 euroko laguntzen kontusail bat egonen da. Teknologo horiek enpresak garatzen lagunduko dute.

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Nafarroako enpresetan kontratazioa laguntzeko aurreikusitako neurriei buruz (9-16/PES-00129). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016. urtean, zenbait neurri aurreikusi dira Nafarroako enpresek kontratazioak egin ditzaten sustatzeko.

Kontuan hartuta enpresa mota ugari dagoela, forma juridikoari, enpresa-tamainari eta beste aldagai batzuei erreparatuta, kontratazioarekin lotutako neurri guztiak erantsi ditugu.

Eskubide Sozialetako lehendakariordetzak zenbait neurri bideratu ditu irabazi asmorik gabeko entitateen eta toki entitateen kontrataziora, enplegu sozial babestuaren eta langabetuentzako kontratazioaren barruan; guztira, 9.200.000 € bideratu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Galdera 2016ko martxoaren 15eko 1150 sarrera-zenbakia dauka (9-16/PES-00130), eta haren bidez jakin nahi du zein den Foru Ogasunak Nafarroako SICAVetatik lortutako zergen bidezko diru-bilketa. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentu-galderan aipatzen diren urteetan, (2005-2014, biak barne), honako hauek dira sozietateen gaineko zergari buruzko datuak:

SICAV	IS 2014	IS 2013	2012	2011	2010
1	-14.636				
2	-13.873	-59.332	-54.584	-18.082	-8.879
3	-16.106	-11.996	-33.618	-49.458	-46.253
4*	-3.302	-1.680	-1.318	-11.697	-783
5	-32.421	-54.783	-31.877		
6	-1.467	-3.436	-3.523	-9.340	-3.798
7	-16.753	-10.698	-34.617	-42.360	
8					-12.301
	-98.558	-141.925	-159.537	-130.937	-72.014

SICAV	2009	2008	2007	2006	2005
1					
2	-2.635	-10.354	-19.355	-4.530	-4.288
3	-17.390	-27.707	-24.100	-14.104	-14.331
4*	2.309	-7.906	-12.495	-14.451	-9.128
5					
6	-6.950	1.783	4.051	3.152	1.748
7					
8	-7.153	0			
	-31.819	-44.184	-51.899	-29.933	-25.999

Datu positiboak sartu beharreko kopuruak dauden kasuak dira, eta negatiboak, berriz, itzultzekoak.

* deitu dugunak gaur egun Nafarroan jarraitzen du.

Lauki zuriak entitateak Nafarroan aitortpena egin ez zuen urteei dagozkie.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:
Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktime nafarren memoria ohoratze aldera 2016an eginen dituen ekitaldiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristaren biktime nafarren memoria ohoratze aldera 2016an eginen dituen ekitaldiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du ETA banda terroristaren biktime nafarren memoria ohoratze aldera Nafarroako Gobernuak eginen dituen ekitaldiei buruz (9-16/PES-00131). Hona Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Eskari horri erantzuteko, hasi behar dugu esaten Gobernu honek behin eta berriz adierazi duela biktimekiko duen eginkizuna zentratu beharra dagoela bakerako itxaropenean, adiskidetzarako gizarteak daukan nahian eta bizikidetasunaren bilaketan, biktime guztiei dagokien egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea zorrotz errespetatuta.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiak 2016ko martxoaren 11n Parlamentuan egin zuen agerraldian informatu zen bezala, Zuzendaritza Nagusiaren helburu bat da biktime guztiei eragindako mina ahal den guztian erreparatzea. Erreparazioak biktime izan diren pertsona bakoitzarekiko errekonozimendua, hurbiltasuna eta lagun egitea eskatzen ditu, eta ahal den guztian pairatutako mina konpontzea, baina, era berean, exijitzen du gizarte-ehunduran sortutako urratuak konpontzea: hausturak osatzea, gorrotoak eta aurreiritziak desagitea eta errespetua, elkarren onarpena eta elkarrizketa erraztea. Erakundeen eta herritarren multzoaren kontzientzia kolektiborako, indarkeriaren biktimek pairatu duten esperientzia gizatasunik gabeak suposa-

tzen ditu erantzukizunaren exijentzia eta hartarako eta indarkeria guztiz desagerrarazteko konpromiso etikorako deia egitea, bai eta berme batzuk jaretzea ere giza eskubideen urratze gehiagorik gerta ez dadin.

Horri dagokionez, abian jarri den terrorismoaren biktimei arreta emateko programaren berri ere eman zen. Programa horren barruan Bakearen, Bizikidetasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusian ETAk hildakoen senide diren zenbait pertsona hartu ditugu eta entzun egin diegu (eta horixe egiten jarraitzen dugu), dauden errealitatea ezagutzeko eta haien beharriak zein diren hobeki zehazteko. Bildutako informazioa oinarri hartuta, gure helburua da zenbait programa ezartzea biktime horiei, ahal den modu onenean, eragin zaien min zuzengabea gainditzen laguntzeko. Programa hori, berriaz ETArekin biktimei zuzenduta dagoena, Javier Marrodanek (Relatos de plomo liburuaren egilea) landutako txosten batean oinarritzen da; izan ere, litekeena da bera izatea ETArekin Nafarroako biktimei buruz gehien dakiena. Harreman horietatik abiatuta, gure borondatea da, halaber, biktimeen lekukotasunak jasotzea, halako moduz non haien ahotsak balioko baitu ekintza izugarri haiek berriro ez gertatzea bermatuko duten neurriak ezartzeko eta biktimeen memoria omentzeko.

Bestalde, gobernu hau ETArekin biktimeen memoria omentzeko antolatutako ekitaldietan egon da. Hartara, gobernuak, bere Lehendakariaren bidez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren bidez eta Bakearen, Bizikidetasunaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiaren bidez, 2016an Gregorio Ordoñezen oroimenez (urtarrilaren 24an) eta Alberto Jiménez Becerril eta haren emazte Ascensión García Ortizen omenez (urtarrilaren 30ean) egin diren ekitaldietan egon da. Gobernu honek jarraituko du ETArekin biktimek omentzeko ekitaldi guztietara joaten, gonbidatzen dutenean.

Gobernu honek, halaber, biktimekiko elkartzeko memoria-ekitaldiak egitea bultzatu nahi ditu, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako dagokien eskubideari erantzuna emateko dauka- gun egitekoaren barruan. Horri dagokionez, Gobernu honen borondatea da terrorismoaren biktimek omentzeko ekitaldi bat antolatzea. Ekitaldi

horren inguruan lan egiten ari gara, eta hari buruz behar den informazioa emanen dugu, finkatuta dagoenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi izan zuen Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenari buruz 2015eko urrian egindako txostenaren datuak ezagutzera ez emateko. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00132 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ez zuen inolaz ere publiko egin 2013ko otsaileko txostena Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpena gutxiesteko, galderaren enuntziatuak dioen bezala; izan ere, jakitera eman zuen agerian jartzeko programa hori hedatu zela aurreikuspenik egin gabe, eta arrazoi

objektiboak badaudela justifikatzen dutenak programa hori eta haren garapena aztertzeko, horren ondorioz hobekuntza-neurriak ezartze aldera.

Giza Baliabideen Zerbitzuak kontseilari honi 2015eko urrian helarazi zitzaion txostenean jasotako datuen gaurkotze bat egin zuen, eta azaroan eman zen jakitera.

Azkenik, 2015eko abenduaren 18an, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak idatziz eskatu zion txosten hori Hezkuntza Departamentuari, eta 2016ko urtarrilaren 15ean igorri zitzaion, epearen barruan. Ezin izan zitzaion lehenago bidali tartean Eguberrietako egun baliogabeak suertatu zirelako.

Horrenbestez, kontseilari honek ez du aurkitze ezkutaketan ibiltzearen aztarnarik datuak gaurkutzen dituen 2015eko urriko txostenari dagokionez, eta sentitzen du gauza bera ezin esatea 2013ko otsaileko txostenari buruz, zeren eta ezkutuan eduki baitzen joan den urtean gobernu-aldaketa gertatu zen arte, eta haren berri ez baikenuen izan 2015eko irailera arte.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ingelesez Ikasteko Programa ezarria duten ikastetxeen kanpo ebaluaziorako txostenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-16/PES-00133 informazio-eskaria aur-

keztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2014-2015 ikasturtearen amaieran ez zen kanpo-ebaluazioko probarik egin Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita duten ikastetxeetako 2. mailan; hori dela eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ez du horri buruzko txostenik, eta proba horiei buruzko ondorioak ere. 2014-2015 ikasturtean egin zen ebaluazioa lehen hezkuntzako 3. mailan egin zen, eta dauden txostenak zentsuaren arabera ebaluazio horri dagozkionak dira.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015ean justifikatu gabe huts egindako mediku-hitzorduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00134), informazioa nahi baitu "Kontzientziario-kanpaina abian jarri eta urtebetera, 2015ean justifikatu gabe huts egindako ziten datuei buruz, honako hauen arabera xehakaturik:

espezialisten kontsultak, bai lehen kontsultan bai hurrengoetan edo azterketa medikoetan; proba diagnostikoak eta oinarriko osasun laguntza. Datuez gain, jakin nahi da ea datu objektiborik dagoen jakin ahal izateko zeintzuk diren huts egiteko arrazoiak; esaterako, jakinarazi edo erregistratu gabeko bizileku-aldaketak, postarekin izandako arazoak... Eta, baiezkoan, jakin nahi da zer neurri hartuko diren". Hona Osasuneko kontseilariaren informazioa:

García Orcoyen Ospitalean, honako hauek dira 2015ean huts egindako ziten inguruko datuak:

Lehenengo kontsultak: % 4,1 (30.967 zitetan 1.265 huts-egite)

Lehenbizikoaz geroztiko kontsultak: % 5,1 (52.277 zitetan 2.692 huts-egite)

Proba osagarriak: % 1,7 (26.518 zitetan 459 huts-egite) (horren barne: ekografiak, TAKak, kolonoskopiak, mamografiak eta gastroskopiak).

Reina Sofía Ospitalean, honako hauek dira 2015ean huts egindako ziten inguruko datuak:

Lehenbiziko kontsultak: % 5,3 (60.919 zitetan 3.272 huts-egite)

Lehenbizikoaz geroztiko kontsultak: % 4,5 (83.658 zitetan 3.831 huts-egite)

Proba osagarriak: % 3,95 (59.355 zitetan 2.343 huts-egite)

Nafarroako Ospitalegunean, honako hauek dira 2015ean huts egindako ziten inguruko datuak:

Lehenbiziko kontsultak: % 5 (276.649 zitetan 3.831 huts-egite)

Lehenbizikoaz geroztiko kontsultak: % 5,5 (474.606 zitetan 27.686 huts-egite)

Proba osagarriak: % 2,9 (175.257 zitetan 5.095 huts-egite)

Oinarrizko Osasun Laguntzan, honako hauek dira 2015ean huts egindako ziten inguruko datuak:

Familiako medikuntza: % 2,1 (2.595.883 zitetan alde zaurretik komunikatu gabeko 54.393 ez-bertaratze izan ziren)

Pediatría: % 2,5 (527.565 zitetan alde zaurretik komunikatu gabeko 12.973 ez-bertaratze izan ziren)

Erizainak: % 3,3 (1.823.283 zitetan alde zaurretik komunikatu gabeko 59.659 ez-bertaratze izan ziren)

Gizarte Lana: % 2,8 (85.641 zitetan alde zaurretik komunikatu gabeko 2.422 ez-bertaratze izan ziren)

Huts egindako zitak ahal den gutxien izan daitezzen hartutako neurriei dagokienez, honako hauek aipa daitezke, laburbilduz:

Publizitateko komunikazio-kanpaina, kontsultetako edo proba diagnostikoetako zitak baliogabetzearen garrantziaz kontzientziatzeko. 2015eko apirilean hasi zen.

Lehen bisitak gogorarazteko SMSak bidaltzea. Hainbat espezialitateetako gaixoei bidaltzen zaizkie; honako espezialitate hauek dira salbuespena: Anestesia, Emakumeari Laguntzeko Zentroak, Kirurgia Torazikoa, Bihotzeko Kirurgia, Genetika, Geriatria, Ginekologia-Obstetrizia, Onkologia Mediko eta Erradioterapikoa eta Psikiatria.

Baliogabetzeak jakinarazi ondoren hutsuneak betetzea. 24 orduko denborarekin betetzen dira abisatu duten gaixoen baliogabetzeen ondorioz geratu diren hutsuneak.

Huts egiteen edo huts egindako kontsulten arrazoiak ezagutzen laguntzeko datu objektiboren bat egoteari buruzko galderari dagokionez:

Badakigu 2015eko apiriletik 2016ko martxora 942 kasutan gaixoak aipatu duela ez zuela zitazioaren gutuna jaso.

Hartuko diren neurriei dagokienez, esan beharra dago O-NOZ bide horretan ari garela lanean. Apiril honetan, esate baterako, Nafarroako Ospitalegunean SMSak bidali dira azterketa-kontsulten berri emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mari-bel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze errentak jaso dituzten familia-unitateek jasotako laguntza osagarri eta bereziei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Errenta bermatuari buruzko aurreproiektuaren zenbatespen ekonomikoari buruz (9-16/PES-00135). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko martxoaren 17ko idazkiaren bitartez, parlamentariak honako informazio hau eskatu du:

“Irauteko baliabiderik ez duten familientzako diru-laguntzak” kontusaila dela-eta 2015eko ekitaldian 12.875 familia-unitatek jaso dutela gizarteratze-errenta. Familia-unitate horiek beste zer laguntza osagarri jaso dituzte etxebizitzaren,

horniduren, elikaduraren, laguntza berezien eta beste edozein arlotan, beren gizarte-babesa lortzera bideratuak?

– Familia-unitate bakoitzak kontzeptu osagarri bakoitza dela-eta jasotako zenbatekoa, baldin eta halakorik badago.

Horri dagokionez, zuzendaritza nagusi honek gizarteratze errentaz beste hiru laguntza mota kudeatu ditu.

1. Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzutik:

(a) Familia- eta gizarte-integraziorako laguntza deitutakoak, zeinak, beren izaerari erreparatuta, gizarteratze errentaren antzekoak dira; horrenbestez ez dago biak jasotzerik.

(b) Laguntza bereziak. Aipatutako 12.875 familia-unitateetatik % 12,4k (1.595 familia-unitate) jaso dute laguntza bereziren bat.

2. Etxebizitza Zerbitzutik:

(c) Errentamendu babesturako diru-laguntzak. Kasu horretan, aipatutako 12.875 familia-unitateetatik % 12,5ek (1.611 familia-unitate) jaso dute diru-laguntza hori.

Laburbilduz, gizarteratze errenta jasotzen duten familia-unitateetatik honako hauek dira laguntza horietakoren bat 2015ean jaso dutenak:

		Laguntza bereziak		
		EZ	Bai	Guztira
Errentamendu	Ez		1.114 (% 9)	1.114 (% 9)
babesturako diru-laguntzak	Bai	1.130 (% 9)	481 (% 4)	1.611 (% 13)
Guztira		1.130 (% 9)	1.595 (% 12)	2.725 (% 21)

2015ean gizarteratze errenta jaso duten familia-unitate guztien gaineko ehunekoa.

familia-unitate bakoitzak kontzeptu osagarri bakoitzeko jasotako diru-zenbatekoa:

Honako hauek dira gizarteratze errenta, (b) laguntza bereziak eta (c) errentamendu babesturako diru-laguntzak 2015ean batera jaso dituzten familia-unitateen datuak, multzoka: Honako hau da

Kontzeptua	Familia-unitateen kopurua	Laguntzen kopurua	Familia unitate bakoitzeko laguntzen batez bestekoa	Guztizko zenbatekoa	Familia-unitate bakoitzeko batez bestekoa
Laguntza bereziak					
Nahi erarako gastuak (1)	10	10	1,00	7.779,24	777,92
Ekipamendua eta bizigarritasuna hobetzea (2)	484	567	1,17	512.465,09	1.058,81
Ohiko etxebizitzarekin lotutako zorrak eta gastuak (3)	1.293	1.484	1,15	1.010.661,77	781,64
Laguntza bereziak, guztira	1.595	2.061	1,29	1.530.906,10	959,82
Etxebizitza-laguntzak					
Errentamendu babesturako diru-laguntzak	1.611	1.611	1	5.716.020,36	3.548,12
Guztira (4)	2.725	3.672	1,34	7.261.812,20	2.664,88

(1) Egoitzetan dauden pertsonen poltsikoko gastu txikiatarako dira.

(2) Horren barne sartzen da etxeko tresna elektrikoak eta oinarrizko altzariak erostea edo etxebizitza egokitzea.

